

proiektuarekiko hurbilketa eta baterakortasuna bilatu beharrean, urruntasuna eta dibergentzia bilatzen zuela. Zoritxarrez, euskal egunkariaren inguruan gertatu dena arazo zabalago eta larriago baten sintoma eta adierazgarri da: hots, euskal gizartearen eraketa sozio-politikoarena, erakunde zibiko-herritarren eta erakunde publikoen arteko artikulazioarena... Azken batez, Euskal Herriarentzako demokrazi ereduarena.

Dena dela, gorabehera triste eta gogor guztion artean bada ere, udazken pozgarria izango da aurtengo hau euskaldun guztiontzat, *Euskaldunon EGUNKARIA* eskuetan izango dugunean. Azken batez, euskal egunkariaren urtea deklaratu du aurtengo hau Euskal Herri euskaldunaren historiak.

Aldizkari bat: *Herria-2000-Eliza*

«Euskara eta Euskal Kultura» izeneko zenbaki monografikoa argitaratu berria du *Herria-2000-Eliza* aldizkariak (110. zenbakia). Kristauen arteko eritzi eta gogoeta-aldizkaria da *Herria-2000-Eliza*. Ez da lehen aldia hone-lako zenbaki monografikoa egiten duela aldizkari honek.

Erdibana edo, euskaraz eta gaztelaniaz dago idatzita zenbaki hau. Alderdi sozio-politotik eta teologiko-pastoraletik begiratuta, hainbat artikulua interesgarri aurki daitezke. Israelgo Kultura eta Hezkuntzako Ministraritzako Zuzendari-ordea den Arie Shoval-ekin elkar hizketan hebraieraren pizkundearen esperientzia erakusten da; beste elkar hizketa batetan, berriz, Txillidaren hitzezko testigutza jasotzen da: «El euskera es decisivo en la identidad de este pueblo».

Bereziki deigarria gertatu zaigu atariko «Carta a un bilingüista» editoriala; estilo oso zirikatzailez agertzen du demokraziaren izenean edo, elebitasuna defendatzen duen erdaldunaren kontradikzioa: «¿Te has percatado que aquí los únicos bilingües son los euskaldunes?»

Liburu bat: *Euskaldunaren hizkuntz eskubideak*

Gidaliburu deritza; eskuliburu izan zitekeen, neurritz txikiagoa izan balitz. Izan ere, euskaldunak etengabe eskuetan erabiliko duen liburua izan nahi bait du.

Kaleratu berria du EKBk liburu hau, aski originala euskal bibliografian; eta seguruenik erdarazkoetan ere bai, euskaldunona bezalako hizkuntz egoerari, juridikoari eta sozialari erantzuten bait dio liburu honek.